

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**248/2018 Foru Agindua, abuztuaren 27koa, onartzen duena betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 19ko 110/2018 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, zeinaren bidez behin betiko onartu zen, zenbait baldintzarekin, Oiongo udalerriko HAPOaren 7. aldaketaren espedientea, Litalсарako industria lurzorua zabaltzeari buruzkoa**

#### I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 19ko 110/2018 Foru Aginduak behin betiko onartu zuen, zenbait baldintzarekin, Oiongo udalerriko HAPOaren 7. aldaketaren espedientea, Litalсарako industria lurzorua zabaltzeari buruzkoa.

Bigarrena. 110/2018 Foru Agindu horrek, kontuan hartuta aipatutako baldintza horiek ez zirela funtsezkoak, agindu zuen, behin zuzendurik, Foru Aldundiari aurkez zekiola espedientea, berriz ere informazio publikoko izapide berri bat egin beharrik gabe, hura bete beharrekoa zela deklaratu eta zegozkion eginbideak egin eta argitararazteko.

Hirugarrena. 2018ko uztailaren 19an, espedientearen testu bateratua sartu zen Aldundi honen erregistroan.

#### II. OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertuta, egiaztatu da testu bateginak aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete dituela.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 19ko 110/2018 Foru Aginduak ezarritako baldintzak betetzat jotzea. Agindu horrek behin betiko onartu zuen, zenbait baldintzarekin, Oiongo udalerriko HAPOaren 7. aldaketaren espedientea, Litalсарako industria lurzorua zabaltzeari buruzkoa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena. Ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2018ko abuztuaren 27a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

**OIONGO UDALERRIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN  
OROKORREKO 2.1.1.36. ARTIKULUAREN BERTSIO BERRIA****2.1.1.36. artikulua. Antolamendu xehatuko OY.29 eremua****I. MUGAK ETA AZALERA**

Eremu honetan Oiongo herrigunean finkatutako industria lurzorua dago: batetik, industria arrunteko zonak, bakartuak zein etxadietan; bestetik, industria bereziak (mahastizaintza eta ardogintzakoak, esaterako).

Azalera, gutxi gorabehera: 783.483,00 m<sup>2</sup>.

**II. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK**

- Garapen ereduaren ardatza herriguneko hegoaldean industria sarea finkatzea da.

**III. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE OROKORRA / EGITUREN ANTOLAMENDURAKO ZEHAZTA-PENAK**

1. Lurzoruaren hirigintza sailkapena: HIRI LURZORUA.

2. Antolamendu / kalifikazio orokorra:

2.1. A.6-01 eta A.6-02 zona: Oso garapen txikiko eraikuntzako bizitegi zona.

Irabaziko zona orokorra, erabilera pribatukoa; A.6 zonetarako, oro har, ezarritako arau orokorrrak dagozkio (1.3.2.4. artikulua, 5. puntua).

A. Zona orokorraren azalera: 12.000,90 m<sup>2</sup>

i. A.6-01: 3.293,43 m<sup>2</sup>

ii. A.6-02: 8.707,48 m<sup>2</sup>

B. Erabilera baldintzak: Berezko erabilera familia bakarrarentzako etxebizitza bakar librea da.

Erabilera bateragarriak: 1.5.2.8 artikuluan ezarritakoak, eta biltegiak eta handizkako merkataritza.

C. Eraikuntza baldintzak:

A. Hirigintzako eraikigarritasuna, guztira: 1.5.2.8 artikulua ondozkoa.

2.2. B.1-01 zonak: Industria intentsibokoak.

Irabaziko zona orokorra, erabilera pribatukoa; B.1 zonetarako, oro har, ezarritako arau orokorrrak dagozkio (1.3.2.4. artikulua, 6. puntua).

A. Zona orokorraren azalera, gutxi gorabehera: 427.387,66 m<sup>2</sup>

iii. B.1-01: 228.299,19 m<sup>2</sup>

iv. B.1-02: 7.541,47 m<sup>2</sup>

v. B.1-03: 191.547,00 m<sup>2</sup>

B. Erabilera baldintzak: Berezko erabilera industria da, erauzketa industriak eta nekazal eta baso manufakturak izan ezik.

Erabilera bateragarriak: 1.5.2.10 artikuluan ezarritakoak.

C. Eraikuntza baldintzak:

A. Hirigintzako eraikigarritasuna, guztira: 1.5.2.10 artikulua ondozkoa.

2.3. B.2-01 zonak: Industrialde berezia.

Irabaziko zona orokorra, erabilera pribatukoa; B.2 zonetarako, oro har, ezarritako arau orokorrrak dagozkio (1.3.2.4. artikulua, 7. puntua).

A. Zona orokorraren azalera, gutxi gorabehera: 312.417,28 m<sup>2</sup>

i. B.2-01: 208.164,81 m<sup>2</sup>

ii. B.2-02: 85.020,45 m<sup>2</sup>

iii. B.2-03: 19.232,02 m<sup>2</sup>

B. Erabilera baldintzak: Berezko erabilerak nekazaritzako eta basogintzako manuflakturen industria eta nekazaritzako eta basogintzako ustiapenei lotutako biltegiak dira.

Erabilera bateragarriak:

i. Gainerako biltegiak eta handizkako merkataritza.

ii. Bulegoak onartzen dira, beheko solairuan eta lehenengoan badaude, eta, betiere, ekoizpen prozesuarekin lotuta baldin badaude.

iii. Txikizkako merkataritza onartzen da beheko solairuan, gehienez ere 500 m<sup>2</sup>-ko azalera-ekin.

iv. Jatetxeak, tabernak eta jatetxe kolektiboak; beheko solairuetan, lurzati eskusiboan eta hotelekin eta dantzaleku eta diskotekekin partekatuta.

v. Hotelak; lurzati eskusiboan eta jatetxe eta tabernekin partekatutako lurzatian.

vi. Komunitate ekipamendua: Dantzalekuak eta diskotekak, lurzati eskusiboan; ikus-entzuzko, arte edo ikuskizun produkzioak, lurzati eskusiboan; zerbitzu publikoak, lurzati eskusiboan.

vii. Zaindari, jagole, arduradun edo jabearen etxebizitza, lurzatiaren azalera 5.000 m<sup>2</sup>-tik gorakoa izanez gero.

Edonola ere, beti beteko da 1.5.2.2 artikuluko 2. puntuan ezartzen dena eta kontuan hartuko da 1.3.1.3 artikuluan ezartzen dena.

C. Eraikuntza baldintzak:

A. Hirigintzako eraikigarritasuna:

i. Hirigintzako eraikigarritasuna, guztira: 1 m<sup>2</sup>(sabal)/m<sup>2</sup> lurzati hartzailearen gainean.

ii. Sestra gaineko hirigintzako eraikigarritasuna: 0,50 m<sup>2</sup>(sabal)/m<sup>2</sup> lurzati hartzailearen gainean.

iii. Sestrapeko hirigintzako eraikigarritasuna: 0,50 m<sup>2</sup>(sabal)/m<sup>2</sup> lurzati hartzailearen gainean.

2.4. E.1.1-01 zona: Bide komunikazioen sistema orokorra. Errepideak.

Erabilera publikoko zona orokorra, komunikazioen sistema orokorrekoa; E.1.1 zonetarako ezarritako arau orokorrak dagozkio (1.3.2.4 artikulua, 12. puntua).

A. Zona orokorraren azalera, gutxi gorabehera: 15.904,70 m<sup>2</sup>

B. Erabilera baldintzak: Berezko erabilera errepide bidezko komunikazioa eta garraioa da.

C. Eraikuntza baldintzak:

A. Hirigintzako eraikigarritasuna: Erregai hornitegirako ezarritakoa finkatu da.

2.5. E.1.2-01 zona: Bide komunikazioen sistema orokorra. Kaleak.

Erabilera publikoko zona orokorra, komunikazioen sistema orokorrekoa; E.1.2 zonetarako ezarritako arau orokorrak dagozkio (1.3.2.4 artikulua, 13. puntua).

A. Zona orokorraren azalera, gutxi gorabehera: 6.853,54 m<sup>2</sup>

B. Erabilera baldintzak: Berezko erabilera errepidezko eta oinezkoentzako bidezko komunikazioa eta garraioa da.

2.6. H.2-01 zona: Uraren saneamendurako azpiegituren sistema orokorra.

Erabilera publikoko zona orokorra, uraren saneamendurako azpiegituren sistema orokorrekoa; H zonetarako ezarritako arau orokorrak dagozkio (1.3.2.4 artikulua, 18. puntua).

A. Zona orokorraren azalera, gutxi gorabehera: 6.674,81 m<sup>2</sup>

B. Erabilera baldintzak: Berezko erabilera uraren saneamendurako azpiegitura zerbitzua da.

D. Eraikuntza baldintzak:

A. Eraikigarritasuna: Jarduera egiteko behar dena.

2.7. I-01 zona: Ur jabari publikoa.

Erabilera publikoko zona orokorra, uraren sistema orokorrekoa; I zonetarako ezarritako arau orokorrak dagozkio (1.3.2.4 artikulua, 19. puntua).

A. Zona orokorraren azalera, gutxi gorabehera: 2.243,68 m<sup>2</sup>

iv. I-01: 1.660,12 m<sup>2</sup>

v. I-02: 583,56 m<sup>2</sup>

B. Erabilera baldintzak: Sektoreko legerian ezarritakoak.

3. Hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia:

Udalaren hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren oinarrizko estrategian ez da ezarri eremuko jarduketan programazioan eragina duen esku hartzeko jarraibide berezirik. Plan Orokorraren zuzeneko egikaritzea identifikatzen da.

4. Garapeneko planeamendua prestatzeko eta onartzeko eta lurzoria programatzeko epeak ezartzea:

Antolamendu xehatua Plan Orokorreko P-4 planoan zehaztu da. Ez da baldintza berezirik ezarri.

5. Egikaritze esparruan dauden eta/edo atxikitako sistema orokorren sarea zehaztea, lortzeko eta/edo gauzatzeko eta kostua onartzeko:

Ez da baldintza berezirik ezarri.

6. Esparru espazialaren mugapen xehatua berraztertzeko irizpideak:

Ez da ezarri irizpiderik, 1.3.2.5 artikuluan ezarritakoa gorabehera.

7. Ingurumena babesteko, natura kontserbatzeko eta paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak defendatzeko irizpideak:

Ez da baldintza berezirik ezarri.

8. Toki sistemen oinarrizko ezaugarriak eta urbanizazioaren gutxieneko baldintzak definitzea:

Urbanizazioaren gutxieneko baldintzak berriazko udal ordenantzan ezarri dira.

#### IV. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE XEHATUA / ANTOLAMENDU XEHATURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Hiri-lurzoruaren kategorizazioa: Urbanizatzeak finkatutako hiri lurzoria, OY.29-AD.1ean izan ezik, hiri lurzoru ez finkatua baita, eraikigarritasuna handitzearen eraginez.

Hala ere, eraikuntzako lanei ekitean frogatzen bada proposatutako eraikineko eraikigarritasun haztatua dagoeneko gauzatutakoa baino handiagoa dela, lursailak kategoria hau lortuko du: haztatutako eraikigarritasuna handitzeagatik finkatu gabeko hiri lurzoria.

2. Antolamendu / kalifikazio xehatua:

A. Azpizonetako eraikigarritasuna. Haztapan koefizienteak. Eraikigarritasun haztatua eta batez bestekoa:

Azpizona bakoitzeko eraikigarritasuna egituren antolamendurako zehaztapenek ezarriko dute.

Azpizona guztietan haztapen koefiziente hauek aplikatuko dira:

— Babes ofizialeko etxebizitza:	1,0
— Etxebizitza tasatua:	1,7
— Etxebizitza librea, blokea:	2,2
— Etxebizitza librea, atxikia:	2,9
— Etxebizitza librea, familia bakarrekoa:	3,5
— Etxebizitza tasatua, garajea:	0,3
— Etxebizitza librea, garajea:	0,5
— Hirugarren sektorekoa:	1,5
— Ekipamendua:	0,5
— Industriakoa:	1,5

Baldin eta uste bada, eta frogatu, ezarritako koefizienteak ez direla egokiak azpizonetako (osoetarako edo zati batzuetarako) uneko egoera ekonomikorako eta hirigintza egoerarako, koefizienteak doitu edota eguneratu egingo dira egoerara egokitzeko eta berriak ezarriko dira azpizonetan eraikigarritasunak gauzatzeko egin beharreko dokumentuetan.

B. Eraikitze baldintza bereziak:

b.2 azpizonetarako zehaztapenak:

- Eraikinen profila eta garaiera, gehienez: 1.5.2.11 artikuluko 11. puntuan ezarritakoa.
- Eraikineko solairuen gutxieneko garaiera libreak: 1.5.2.11 artikuluko 12. puntuan ezarritakoa.
- Instrumentu hau behin betiko onesten den unean existitzen diren eraikinak finkatuta geratuko dira.

C. Jabari eta erabilera baldintza bereziak:

b.2 azpizonetarako zehaztapenak:

- Gutxieneko lurzatia:
- Instrumentu hau behin betiko onartzen den unean existitzen diren lurzatiak finkatuta geratuko dira.
- Tresna hau behin betiko onartu ostean eratzen diren lurzati guztiek 1.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango dute, gutxienez.
- Lurzatiaren aurrealdea, gutxienez: 20 m.
- Eraikinek okupatzen duten lurzorua: lurzati hartzailearen % 60.
- Eraikinetik mugetarainoko tartea: 1.5.2.11 artikuluko 8. puntuan ezarritakoa.
- Lurzati bereko eraikinen arteko distantzia: 1.5.2.11 artikuluko 9. puntuan ezarritakoa.
- Espazio eraikian, lurzatiaren batasuna zainduta, azpizatiketa eragiketarako egiteko baldintza bereziak: 1.5.2.11 artikuluko 13. puntuan ezarritakoa.

Espazio publikoetako erabilerei buruzko arauak mota bakoitzeko arautegi orokorrean ezarri dira.

D. Eraikinen eta/edo elementu berezien katalogazioaren baldintzak:

Ez dago horrelakorik.

E. Urbanizazio baldintzak: azpiegituren lerrokadurak, sestrak, ebakidurak eta eskemak:

Urbanizazioaren baldintzak berariazko udal ordenantzan ezarri dira.

3. Egikaritze araubide iragankorra:

Ez da ezarri.

4. Antolamendutik kanpo dauden eraikinak eta planeamenduarekin bat ez datozenak:

Antolamendu xehatuaren arabera zuzkidura publikoetarako lurzoruan dauden elementuak, instalazioak eta eraikinak ez datoz bat planeamenduarekin (A gradua) eta 1.4.6.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

V. HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Esparru honetan honako hauetan ezarritako zehaztapenak aplikatu behar dira: uren gaineko legeria; EAEko Ibai eta Erreka Bazterrak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala; Arabako Lurralde Historikoko Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Araua; Arabako Errepideen Plan Integrala; Lurzorua kutsaduraren prebentzioari eta zuzenketari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legea.

## OY.29 AD.1 ZUZKIDURAREN JARDUKETA FITXA

OY.29-AD.1		
SAILKAPENA		HIRI LURZORUA
KATEGORIA		ERAIKIGARRITASUNA HANDITU DELAKO FINKATU GABE DAGOEN HIRI LURZORUA
JARDUKETA MOTA		HORNIDURA JARDUKETA
EREMUAREN AZALERA, GUZTIRA (lurzoru m2)		37.891,00
DAGOEN JABETZAREN EGITURA		
LURZATI PRIBATUen azalera, guztira (lurzoru m2)		37.891,00
ESPAZIO PUBLIKOaren azalera, guztira (lurzoru m2)		0,00
ANTOLAKETA		
ONDORIOZKO LURZATI PRIBATUA (lurzoru m2)		36.913,00
Industria azpizona (lurzoru m2) b.11		36.913,00
ESPAZIO PUBLIKOAREN LAGAPENA (lurzoru m2)		978,00
Berdeguneak eta espazio libreak (lurzoru m2) f.11		978,00
BEREZO ERABILERA		INDUSTRIA
ERAIKUNTZA TIPOLOGIA		ERAIKIN ATXIKIA / ERAIKIN BAKARRA
ERABILERA BATERAGARRIAK		Ikus 1.5.2.10 artikuluko 14) atala
ERAIKIGARRITASUNA ETA OKUPAZIOA		
ERAIKIGARRITASUNA KOEF. sestra gainean (sabai m <sup>2</sup> / lurzoru m <sup>2</sup> )		0,70
		26.523,70
ERAIKIGARRITASUNA sestra gainean (sabai m2)		(9.016,70 hedapenari dagozkio)
OKUPAZIO KOEF. (okupazio m <sup>2</sup> /lurzoru m <sup>2</sup> )		Gehienez % 70
		26.523,70
OKUPAZIOA sestra gainean (okupazio m <sup>2</sup> )		(8.000,00 hedapenari dagozkio)
LURZATIAREN BALDINTZAK		
Birparzelazioaren ondorioz irabaziko aprobetxamendua duen lurzati, zeina hiri lorzoruaren barruan dagoen lurzatiaren zatiarekin batera katastro erreferentzia bakarra den, multzokatuta geratuko da birparzelazio prozesuaren ostean, 3. poligonoko 1687 lurzatiaren A azpizartelarekin, lurzati bakarra osatuz.		
HIRIGINTZAKO EKINTZAK SORTUTAKO GAINBALIOETAN KOMUNITATEAK PARTE HARTZEA		
Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 27. artikuluko 4. atalean aurreikusitako haztatutako eraikigarritasunaren % 15 (urbanizatzeko gargarik gabe) laga ordez, kasu honetan, balio horren ordainketa egingo da dirutan; dena dela, zenbateko hori lurzoruaren ondare publikoari atxikita geratuko da.		
TOKIKO SISTEMEN SAREKO HORNIDURA ESTANDARRAK <sup>*(1)</sup>		
	2/2006 Legearen eta 123/2012 Dekretuaren arabera	Aldaketa puntualean aurrakusitakoa
Berdeguneak eta espazio libreak (lurzoru m2)	772,86	978 m2
Aparkalekuak partzela pribatuetan	0	0
Zuhaitzak	90	90
OHARRAK		
*(1) Tokiko zuzkidura horiek kalkulatzeko kontuan hartuko da hirigintza-eraikigarritasuna zenbat handitu den aurrez gauzatukoaren aldean.		
URBANIZATZE OBRAK EGIKARITZEAN ARAUDI LOTESLE IZAERA DUTEN BALDINTZAK		
1. Aldaketa puntualari dagokion eremuko berdeguneetan egingo diren jarduerak jomuga izango dute, batetik, zona jakin batzuetan gaur egun kaltetuta egon daitekeen substratu edafikoa lehengoratzeko eta, horretarako, 30 zentimetroko kalitatezko landare lur geruza ezarriko da, eta, bestetik, arteak (Quercus ilex) landatzea, bai eta bertako landaretan berezkoak diren zuhaixka erako espezieak eta Mediterraneoko garrigako berezko oihanpeko espezieak ere (Quercus coccifera, Crataegus monogyna, Juniperus oxycedrus, Rhamnus alaternus, Rosmarinus officinalis, Erica scoparia, Juniperus phoenicea, Pistacia lentiscus, Lavandula latifolia, Cistus salvifolius...). Berdegune horiek egokitzeko honako obra unitate hauek hartuko dira kontuan zehazki:		
a) Xehetasuneko modelatua eta profilaketa egitea eta lurrazaleko forma irregularrak erregularizatzea, lur naturalarekin kontaktuan dauden zonetan doikuntza fisiografikoa egiteko, atzerako hondeamakina egokiarekin, bukaera egokia lortu arte obrak gauzatu aurreko profila leheneratzeko, eta soberakinak kargatu eta zabortegi kontrolatu batera garraiatzea, baldin eta helburua lehenago azaldu den hori ez bada.		
b) Lan eremuen gainean landaretzako lur geruza kalitatezko bat jartzea, 30 cm lodi, gutxi gorabehera, alde zuzeneko eremuak prestatu eta lurra araturik, gero asentu, karga, garraio, zabaltze eta behar bezala bukatzeko xehetasuneko berdintzea gauzatzeko haietan.		
c) Lurzoru lantzea eta harrotzea, eta ondoren, fintzea eta berdintzea, azalera ereintzarako prestatzeko eremu lauetan edo malda txikiagokoetan. Lurrak aratzea, sasiak garbitzea, lurra garbitzea eta harriak kentzea (behar balitz) eta fintzea, behar bezalako akabera emateko. Harri, landare hondakin eta elementu arrotzak bildu eta baimendutako hondakindegira garraiatu beharko dira.		

- d) Eremu lauetako landa ereitea, 35gr/m<sup>2</sup>-ko haziak erabiliz (espezie gramineoak eta lekadunak), zokorrak jotzea barne, edo lur harrotze arina, aratzea, ereitea eta ongarritzea, eta hazia 20.000 kg/ha lurrustel edo antzekoarekin estaltzea. Ereindako eremuetan bertako habitat naturalak sor daitezen utziko da.
- e) Gertuko ingurunean berez dauden eta garrigaren beraren oihanpeari dagozkion zuhaixka espezieak landatzea, sustrai biluzian edo erro lurrean, zurkaitza behar bezala jarrita, material fotodegradagarriko belar aurkako babeslea jarriz, 110 gr/m<sup>2</sup>-ko dentsitateko "horsol" motakoa, edo antzekoa, ondo ainguratuta, baita kontserbazioa eta lehen ureztaketa ere. Landatzeko zuloaren neurria 0,4 x 0,4 x 0,4 metro izango da, edozein lur motatan egitekoa, zuloa lurrustelez hobetutako landare lurrez beteta. Halaber, hutsarteak beteko dira eta zuloa zabaltzean sortutako hondakinak kargatu eta hondakindegia kontrolatu batera eramango dira, hala badagokio, eta isurtze saria ordainduko da. Landaketa esparrua: 1,5x1,5 m.
- f) Arte (*Quercus ilex*) zuhaitz aleak landatzea, sustrai biluzian edo erro lurrean, zurkaitza behar bezala jarrita, gutxienez 1,75 metro garai direnak, zuzen ainguratutako material fotodegradagarriko belar aurkako babeslearekin, gutxienez 2 eta 3 urte arteko iraupena bermatuta, baita zaintzea eta ureztaketak ere. Zuloaren neurria 0,6 x 0,6 x 0,8 metro izango da, edozein lur motatan egitekoa, zuloa lurrustelez hobetutako landare lurrez beteta. Halaber, hutsarteak beteko dira eta zuloa zabaltzean sortutako hondakinak kargatu eta hondakindegia kontrolatu batera eramango dira, hala badagokio. Landaketa esparrua: 2,52,5 m.
- g) Landaketen mantentze integrala. Ur eskasia dagoen aldietan, landaketak ureztatu beharko dira, eta ureztaketa bakoitzean 12 l ur erabili beharko da landare bakoitzeko; lehen ureztaketan, berriz, degradazio moteleko NPK ongarririk 100 gramo erantsiko zaio ureztatzeko urari landare bakoitzeko (3.000 kg/ha). Baita ondoztatzeak, saratzeak eta jorraketak, beharrezkoak izanez gero, eta eraketako inausketa bat eta adar hilak eta xurgatzaileak kentzea, eta zurkaitzak eta oinarriko babesgarriak berritzea ere.
- 2.** Aldaketa puntualari dagoen eremuetako edozeinetan proposatutako jardunak gauzatzeko lurra atera behar bada, landare lurriari dagozkion horizonteak era selektiboan aterako dira, eta, onena, berehala birbanatzea edo, ezinezkoa balitz, metatzea litzateke. Lur metak gehienez hiru metro izango ditu altueran, eta ebakidura trapezoidaleko masatan pilatuko da. Landare lurra, lehentasunez, gainazaleko landare eta lurzorua lehengoratzeko lanetarako erabiliko da, lehenbizi, eta, bigarrenik, gertuko beste lurzati batzuetara eramango da, nekazaritza ekoizpeneko finkak hobetzeko.
- 3.** Baldin eremuan uhalde enararen (espezie mehatxatu katalogatua) habiagintza puntuak edo koloniak detektatzen badira, uhalde enararen (*Riparia riparia*) kudeaketa planean ezarritako gomendioak eta zehaztapenak aintzat hartu beharko dira. Kudeaketa plan hori Diputatuaren Kontseiluaren martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretu bidez onartu zen, eta ALHAOren 73. zenbakian argitaratu, 2000ko martxoaren 27an.
- 4.** Aldaketa puntualari dagozkion jardunak gauzatzeko, obrak egiteko aldiak, ontzi estankoak, biltegi irazgaiztuak edo lubrifikatzaileak edo erregaia biltegitzeko bestelako sistemak gaitu beharko dira; galarazita egongo da erabilitakoak isurtzea, eta baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio. Debeku hori hormigoi hondakiniei, eraikuntzako materialei, lurri eta abarri ere dagokie; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimendutara eramane beharko dira. Bide zoruak kentzean ateratzen diren eraikuntza eta eraiste hondakinak kudeatzeko, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak, eraikuntza eta eraipen hondakinak ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituenak, ezarritakoa bete behar da.
- 5.** Aldaketa puntualaren barnean gauzatzen diren ekintzen jarraipena egingo da, eta bereziki berdeguneetan egiten diren jardunen gauzatea gainbegiratuko da.